

# KIROL ANTOLATUAREN LEKUA EUSKARAREN BIZIBERRITZEAN TAILERRA

## NOLA GAUDE?

*Helburua:* kirolean euskarak duen egoeraren zertzelada nagusiak identifikatzea

*Idea zaparrada:*

- Kirolean gizarteko arauak erreproduzitzen dira.
  - Gazteek euskara gehiago erabiltzen dute, oro har; baina hori ez da ikusten kirolean, erabilera txikia baita.
- Agente eta ekimen asko daude kirolean euskararen alde, baina norbere aldetik.
- Kirola gaztelaniaz kontsumitzen da. Euskarazko erreferenteak eta ereduak behar dira. Diskurtsoa duten kirolariak saretu behar ditugu
- Begiraleen ezagutza falta:
  - Euskara gaitasuna (hiztegi teknikoa, erosotasuna...)
  - Hizkuntzak kudeatzeko gaitasuna, taldean
  - Begiraleen gain geratu hizkuntza kudeaketa, klubaren aldetik erabakirik ez
- Oro har, kontzientzia falta da. Hizkuntza ez dago lehentasunen artean.
- Kirol mundua bolondresez josita/antolatua dago. Ezaugarri horrek erronka dakar esku-hartzeak proposatzeko.
- Esku-hartze desberdinak planteatu beharra. Kasuistika zabala dago kirol munduan (eskola kirola, klubak...)
- Irla euskaltzaleak badaude (pertsonek/taldeak) baina diskurtsiboki lotuko dituen falta da
- Hainbat eremutan beldurra dago kirol eskaintza euskaraz eskaintzeari

- Kirola bateratzailea, prekariora, aldakorra, egonkortasun gutxikoa da
- Klubetan euskara planak sustatu behar lirateke? Diru-laguntzak bideratu horretarako?
- Gaur egun badaude entrenatzaileak euskaraz entrenatzeko prest. Poltsa horiek sortu behar dira eta ordaindu euskaraz entrenatzeko.
- Udalen instalazioetan desproporzionatua da erabilera. Udalek kontratatzen dituzten enpresek ez dituzke hizkuntza irizpideak betetzen
- Orain dela gutxi arte Udalean ez zaio erreparatu kirolaren arloari, beraien kabuz ibili dira. Beraz harreman horiek ere eraiki behar ditugu
- Kirolaren artean desoreka nabarmenak daude. Ia lurralde gehienetan pilota eta futboleko hizkuntza kudeaketa desberdina. Zer gertatzen hor? Ikas dezagun
- Eragile/aktoreen mapa horretan sartu beharko genituzke hauek: guraso elkarteak + enpresak

### **NORA IRITSI NAHI?**

*Helburua: nora iritsi nahi dugun hausnartzea*

*Idea zaparrada:*

- Kirol munduko beharrekin konektatu beharra:
  - Administrazio publikotik esku-hartzeak zeharlerrotasunez planteatu behar dira.
  - Klubek, esaterako, gustura hartuko lukete koordinazio- edo kudeaketa-lan orokorrak profesionalizatzea. Ordainpeko koordinatzaile profesional horiek euskaraz lan egin dezaten ahalbidetu.
- Erakundeen arteko adostasunak behar dira, lehentasunak markatu eta batera lan egiteko.
  - Udal edo erakunde publikoaren barruko kirol departamentuekin. Elkarrekin lan egitea adostu behar dugu.
  - Udal txikiak elkartu gaitezke eskualde mailan lan egiteko
  - Eskala desberdinetako erakundeak koordinatu behar dira, bestela lanketa paraleloak daude
- Kluben egitekoa kirol lehiakortasunetik harago kokatu behar litzateke. Bestelako balioen (tartean, euskararen) sustapenari garrantzia edota prestigio soziala eman behar litzaieke.

- Euskararen alorrekoak beste alorretara hurbiltzeaz jarduten dugu, baina noiz gerta daiteke kirol mundutik euskarara hurbiltzea?
- Euskararen aldeko urratsak ematea saritu/babestu bai, baina hizkuntza-kontzientzia hedatzeari eman behar litzaioke lehentasuna?
- Kirolen arabera (eskura dituzten baliabideak aintzat hartuz) eskakizun desberdinak zehaztu behar lirateke.
- Gaztelaniaz egiten eta eskaintzen ez dena eskaini behar dugu euskaraz
- Normalkuntzarako profilak sortu daitezke? Klubean ordu batzuk liberatuko den pertsona?
- Federazioei lege betekizunak betearazi behar zaizkie
- Borondatea dagoen klubetatik hasi behar dugu. Badaude klub asko borondatea dutenak baina ez dakitenak nondik hasi. Hauek izan behar dute lehentasuna

### **NONDIK HASI?**

*Helburua: guretik hasita, aldaketak identifikatzen saiatzea. Zer egin dezakegu desberdin?*

*Idea zaparrada:*

- "Trukean" zerbait eman beharra (baliabide ekonomikoak, giza baliabideen lan-poltsak, itzulpen-zerbitzuak...). Entrenatzaileak badaude euskaraz egingo luketenak. Poltsak sortu behar dira eta 70 euro (adibidez) eman euskaraz entrenatzeagatik.
- Eskola kiroleko epailei hizkuntzaren inguruko oinarriak erakutsi.
- Gerturatzeko modua zaindu. Harreman horizontalak eraiki.
- Gazteen/nerabeen motibazioa landu beharra.
- Kirolean euskaraz egiteko babesleku gisa sentiarazi beharra.
- Euskaraz (hala moduz) hitz egiteko espazio seguruen beharra.
- Kirol mahaien egiturak sortu herri/eskualdeetan.
- Kiroldegietan hizkuntza erregistroak egin.
- EAEko entrenatzaileen titulazioa (euskaraz) Nafarrera ere eraman.

## ERANSKINAK

*Eztabaida bideratzeko, honako irudi hau aurkeztu zen lantaldean. Tokian tokiko kirol sistema antolatu baten agenteak edo eragileak zerrendatzeko ahalegina egiten da irudian.*

